



KONTRASTEKO MAHAI POLITIKOA

2022ko irailak 27

GAI-ZERREDA:

- 1.- Ongi etorria eman eta ordezkariak eta bileraren helburua aurkeztu.
- 2.- Enpresen Kontsulta Foroak lehenetsitako proposamenak aurkeztu.
- 3.- Talde politikoek aurkeztutako proposamenen inguruan hausnartu.
- 4.- Kontrasteko taldeko eztabaida proposamenak, galderak eta iradokizunak analizatzeko.

BERTARATUAK (% 70)

DEITUTAKOAK		BERTARATUA K	BERTARATU GABEAK	
			Arrazoia emanda	Arrazoia eman gabe
Taxien ordezkaria	Jose Ignacio López		X	
Aisialdi-kiroleko ordezkaria	Héctor García	X		
Interpretazio-zentroen, gidarien eta bidaia-agentzien ordezkaria	Iñigo García	X		
Ostatuen ordezkaria	Postu hutsa			
Merkataritzako ordezkaria				
Algortako Dendak	Oriente Enriquez		X	
Romo Bizirik	Ainhoa Calderón	X		
Getxo Enpresa	Jose Manuel Garay		X	
Ostalaritzako ordezkaria				
Asohge	Jorge Alonso	X		
Romo Bizirik	Jon Morán			X
Getxo Enpresa	Desiree Yeste			X
Alderdi politikoak				
Elkarrekin Podemos	Carolina Uribe	X		
EH Bildu	Ibon Rodriguez	X		
PSEE	Carmen Díaz	X		
PP	Fco. Javier Elorza	X		
EAJ/PNV	Irantzu Uriarte	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sustapeneko Arloa				
Ekonomia Sustapeneko zinegotzia	Iñigo Urkitza	X		
Ekonomia Sustapeneko lantaldea	Juan Jesús Blanco	X		
	Mirene	X		



	Zabalgogezcoa			
	Sonia Urdiain	X		
	Aitor Zorrilla	X		

EDUKIA

1.- Ongi etorria eman eta ordezkariak eta bileraren helburua aurkeztu.

Bertaratuak agurtu eta sektore ordezkariak, talde politikoak, eta Juan Jesús Blanco Ekonomia Sustapeneko Arloko arduradun berria eta Iñigo Urkitza Ekonomia Sustapeneko zinegotzia aurkeztu ondoren, Kontraste Politikoko Mahaiaren bilera hasi da eta sektoreetako ordezkariak dei egiten die beraiek azal ditzaten proiektuak.

2.- Enpresen Kontsulta Foroak lehenetsitako proposamenak aurkeztu.

Iñigo Urkitzak, Ekonomia Sustapeneko zinegotziak, Enpresen Kontsulta Foroak lehenetsitako proposamenak irakurri ditu.

2.1 Getxo BONO 2023: Mahaien ekarpenak baloratzea deialdi berrirako (jarduera gutxiagoko aldiak eta sektoreen parte-hartzea, interesen arabera); (1. puntua).

Ainhoa Calderónek, Romo Bizirik elkarteko merkataritza ordezkariak, azpimarratu du interesgarria litzatekeela Getxo Bonoko kanpainak jarduera gutxi egoten den garaian egitea, ez beherapenekin batera, eta ezta ere Eusko Jaurlaritzako Euskadi Bono Denda kanpainarekin batera, baina jakitun da oraindik ez dakigula noiz izango diren hurrengo datak.

Jorge Alonsok, ASOHGE Ostalaritza elkarteko kideak, esan du ostalaritza sektoreak oso gutxi parte hartu duela eta bezeroek ez dutela bonoa ostalaritzarekin lotzen, baizik eta beste sektore batzuekin, hala nola merkataritza. "Saldu ditugun bonoen % 99,9 bezeroei guk eskaini dizkiegu. Ez da bezero batik etorri eskatzera bonoa aplikatzeko", dio Jorge Alonsok. Horrekin lotuta, Alonsok proposatu du Getxo Bonoko ostalaritzako zenbatekoa gainerako sektoreetan banatzea eta ostalaritzarako bestelako ekintza batzuk egitea.

Héctor Garcíak, Kirol Aisialdia sektoreko ordezkariak, esan du bere sektorean ongi funtzionatzen duela: "Bezeroak fidelizatzeko, promozioak egiteko eta bezero berriak erakartzeko balio digu". Gainera, esan du beraientzat trukatzeko sistema sinplea dela, emandako zerbitzu bakoitzeko fakturak egiten dituztelako.

Iñigo Garcíak Interpretazio zentroen, giden eta bidaia agentzien sektoreko ordezkari gisa jardunez, azaldu du bere sektoreko enpresak oso anitzak direla: "Enpresa batzuek tokiko bezeroei zerbitzuak ematen dizkiete eta horiei funtzionatzen die Getxo Bonoak, baina, bezero nazionalekin ez du hainbeste funtzionatzen".



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Jorge Alonsok, ASOHGE Ostalaritza elkarteak ordezkariek, uste du sektore batzuetan GetxoBonoak ez duela fakturazio kopurua handitzen, baizik eta soilik balio duela bezeroek gutxiago ordaintzeko. Gutxienez tokiko bezeroen artean, eta horregatik esan du kanpoko bezeroen artean promozionatu beharko litzatekeela.

Sonia Urdiainek, Ekonomia Sustapenaren Arloko teknikariak, azpimarratu du irailaren 13ko azken Kontsulta Foroan aipatu zen ideia nagusia izan zela hauxe: “Getxo Bonoa bai, baina zenbait sektorerentzat beste formula batzuk bilatu beharko lirateke”.

2.2 Web posizionamendua: web posizionamendua eta online salmenta hobetzeko prestakuntza- eta aholkularitza-ekintzak. (1,33 puntu)

Ekintza hori Interpretazio zentroen, giden eta bidaiak agentzien mahaian sortu zen. Iñigo García azaldu du laguntza plan asko daudela, besteak beste Kit Digitala, baina hala ere, sektorean ikusi dutela digitalizazio prozesua oso konplikatu dela. Berarentzat oso garrantzitsua da Ekonomia Sustapeneko Arloak enpresen online posizionamendua hobetzeko eskaini dezakeen aholkularitza/laguntza: web orria nola indartu, nola iritsi bezero gehiagorengana, eta abar.

Mirene Zabalgogezkoak, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, hauxe esan du: “Nahiz eta proposamena Interpretazio zentroen, giden eta bidaiak agentzien mahaiak egin zuen, sektore eta jarduera guztietako enpresek partekatzen dugun proposamena da. Enpresei aholkularitza eman ahal izatea, aholkularitza pertsonalizatuarekin prestakuntza pilulei erantzuteko”.

2.3 Komun publikoa: flyscheko ibilbidean (aparkaleku zaharra eta Azkorri hondartza lotzen dituen bidean) komun berria jartzeko proposamena egin zaio dagokion arloari. (1,4 puntu)

Sonia Urdiainek, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, esan du Hirigintza Arloak jakinarazi duela komun bat jarri dutela Galeako gotorlekuaren ondoan. Hala ere, proposatutako zona horretan komun berria jartzeko (aparkaleku zaharraren eta Azkorri hondartzaren artean), Hirigintza Arloak esan du ez dagoela horretarako finantzaketarik, beste leku batzuk daude aurreikusita, eta ez dago saneamendusararik instalazioa egin ahal izateko.

Javier Elorzak, PPko ordezkariek, hauxe esan du: “Ez da posible hendirik ez egotea, etxebizitzak eta igerilekuak baitaude”.

2.4 Ostalaritzako Dinamizazio Plana). (1,4 puntu)

Jorge Alonsok Getxo Bonotik haratagoko formulak proposatu ditu ostalaritza dinamizatzeko kanpoko bezeroak erakarri, eta ostalaritzan ez ezik, beste sektore



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

batzuetan ere kontsumitu dezaten. “Ostalaritzarekin paraleloak diren ekintzak lotzea sektorea astelehenetik asteazkenera dinamizatzeko. Adibidez, Getxo Folkaren aurreko astean artistek sinatzeko ekintzak egitea eta abar”, dio Alonsok. Ainhoa Calderónek, Romo Bizirik elkarteko merkataritza ordezkariak, dio baita ere proposamen hori interesgarria dela.

2.5 Gabonetako kanpaina: Deialdi berrirako mahaien ekarpenak baloratzea (argiztapena, kanpainak pertsonalizatzea, tokiko erosketen gaineko sentsibilizazioa, musika, garraioa eta abar.). (1,5 puntu)

Ainhoa Calderónek, Romo Bizirik elkarteko merkataritza ordezkariak, iazko “zuhaitz txikiak” mantentzea proposatu du. Mirene Zabalgogezcoak, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak (Ainhoa Calderónek ez baitzuen parte hartu azken kontsulta foroan) esan du zein den merkataritza sektoreak Gabonekiko duen iritzia: “Geroz eta apalagoak dira, kalean geroz eta giro gutxiago egoten da, eta beharbada musikak pixka bat animatu dezake”. Gainera, merkataritza mahaiak emozioei eta pertsonari (merkataria, ostalariak eta abar) lotutako kanpaina bat egiteko izan zuen ideia ere azaldu du. Horretarako, enpresa adjudikaziodunari jakinarazi zaio eta lantzen ari dira.

2.6 Publizitate espazioa: Kirol Portuan turismo-zerbitzuak sustatu eta saltzeko espazio bat izateko aukera aztertzea. (1,5 puntu)

Iñigo Garcíak, Interpretazio zentroen, giden eta bidaia agentzien ordezkariak, esan du “komertzialagoak” izen behar direla, panel digitaletan eskaintzen dituzten zerbitzuak gehiago agertu behar direla. Kirol Aisialdia proposamen horren barne dago. Héctor Garcíak esan du euskarri fisikoa izateaz gain, arreta emateko salmenta postu errealak ere egon behar direla. “Beharbada ItsasHubean arreta pertsonalizatua emateko eta salmentak egiteko postua jarri daiteke”, esan du Héctor Garcíak.

Jorge Alonsok, ASOHGE elkarteko ostalaritza ordezkariak, hauxe gehitu du: “Bizkaiko Zubitik kirol portura arte tokiko eta kanpoko bisitari ugari ibiltzen dira, eta beharbada publizitateko euskarri fisikoak jarri daitezke, bai kultura ekimenak (Muxikebarria) eta merkataritzakoak (Getxobono) erakusteko”.

2.7 Bizkaia CARD: sustatzaileekin kontsultatu, eta aztertu ea Getxoko eskaintza turistikoa bultzatzeko ekintzaren bat egin ote daitekeen. (1,6 puntu)

Sonia Urdiainek Bizkaia Carden nondik norakoak azaldu ditu: “Txartel fisikoa da eta turistek erosten dute garraio publikoa erabiltzeko. Bidaia kopuru mugagabea du, eta gainera, deskontuak eta promozioak ematen ditu programari atxikitako establezimenduetan”.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Txartela Bilbon bakarrik erabil daiteke, baina lurraldean geroz eta leku gehiagok eskaintzen dute. Sonia Urdiainek esan du sektoreak udalerriko eskaintza turistikoa hobeto kokatu nahi duela.

2.8 Merkealdia: baimenaren izapidetzea sinplifikatzea (planoak eta eskaria). (1,67 puntu)

Ainhoa Calderónek, Romo Bizirik elkarteko merkataritza sektoreko ordezkariak, esan du azken urteetan badirudiela Merkealdien kanpainak eragin gutxiago duela.

Mirene Zabalgogezcoak, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, esan du hurrengo urteko martxoko eta iraileko Merkealdien bi kanpainetan parte hartzeko eskari bakarra egin beharko dela. Horretarako, atxikitako saltokiek erantzukizunpeko adierazpena egin beharko dute eta bertan konpromisoa hartuko dute iraileko Merkealdia martxoko Merkealdien baldintza berberetan egiteko.

Bestalde, esan du merkataritzako azken sektore mahaian hartutako konpromisoarekin bat etorritik, sektoreko ordezkariak azken Merkealdien kanpainetako partaidetza datuak bidali zitzaizkiela. “Bai, parte-hartzaile kopurua pixka bat gutxitu da. Horrexegatik eskatu diegu elkarteei beren foroetan pentsatu dezatela ea zentzurik baduen edo ez hurrengo Merkealdia egitea”, dio Mirene Zabalgogezcoak.

“Modaren sektorea oso indartsua da Merkealdietan, eta pandemiaren ondoren aldatu egin da sektorearen hornitzeko modua. Geroz eta stock gutxiago dute, eta beraz, Merkealdia zentzua galtzen doaz”, esan du Mirene Zabalgogezcoak Merkealdien atxikipen kopurua murriztearen inguruan.

Jorge Alonsok, ASOHGE elkarteko ostalaritza sektoreko ordezkariak, azaldu du azken Kontsulta Foroan merkataritza sektoreak jakinarazi zuela Romoko saltoki batzuentzat ezinezkoa zela kanpainara atxikitzea, izan ere, espaloiak oso estuak dira eta ez dute araudia betetzen. Horri buruz hauxe esan du Mirene Zabalgogezcoak: “Saltoki horiek aparkatzeko zonak okupatu ahal izatea aztertuko dugu”. Hala ere, Mirene Zabalgogezcoak azpimarratu du garrantzitsua dela baita ere merkataritza sektoreak hausnarketak egitea jakiteko zein izan den atxikipenak murriztearen arrazoia.

2.9 Plano TURISTIKOAK: Getxoko planoak Bilbo-Bilbo Metropolitiko planoetan sartzea proposatzea. (1,67 puntu)

Iñigo García, Interpretazio Zentroak, gidak eta bidaia agentziak sektorekoak, esan du proposamenaren helburua dela Getxori ikusgarritasun handiagoa ematea promozio materialetan, eta Bizkaia Cardekin lotuta dagoela (2.7 puntu).



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

2.10 OSTATU HARTZEKO BESTE AUKERA BATZUEN ESKAINTZA GEHITZEA: autokarabanak eta aterpetxeak. Ekimen publikoa. (1,75 puntu)

Jorge Alonsok, ASOHGE elkarteko ostalaritza sektoreko ordezkariak, uste du ostatu hartzen ez duten bisitariak ez dutela kontsumitzen, eta Getxoko ostatu aukeren eskaintza ez dela nahikoa ezta anitza ere. Helburua turismoa erakartzea da. Udalerrian gaua pasa eta kontsumitu dezatela.

2.11 TAO: industria-ibilgailua daukaten eta udalerritik kanpo bizi diren jarduera ekonomikoen titularrak identifikatzea. (2 puntu)

Ainhoa Calderónek, Romo Bizirik elkarteko merkataritza sektoreko ordezkariak, esan du proposamena merkataritza mahaian sortu zela, izan ere, udalerriko enpresa batzuetako jardueraren titularrak ez dira Getxon bizi, eta TAO txartelik ez dutenez, zaila eta garestia da merkataritza lekualdatzeak egitea: banaketak, irteerak eta abar. Beraz, txartel bat edo bestelako irtenbideren bat eskatu du.

2.12 GURUTZAONTZIETAKO BIDAIAIENTZAKO WEB ESKAINTZA BEREZIA: BBAGri helarazi proposamena (2 puntu).

Sonia Urdiainek, Ekonomia Sustapenaren Arloko teknikariak, azaldu du zertan datzan Bilbao Bizkaia Action Group (BBAG) delakoak, eta esan du hainbat sektore mahai kezkatuta daudela ekintza honengatik: "Ez dago inpaktu ekonomiko errealik, nahiz eta Getxora hainbat gurutzaontzi iristen diren". Horregatik, gurutzaontziek duten eragin ekonomikoa hobetzeko estrategia lantzea proposa liteke BBAGren bitartez, eta helmugako (Bilbo-Bizkaia) turismo-eskaintza hobeto helarazteko, berariaz gurutzaontzientzat den website bat abiaraztea.

2.13 EUSKAL HERRIA KALEA OINEZKOENTZAT EGITEKO PROIEKTUA: arloari helarazi (2 puntu)

Jorge Alonsok, ASOHGE elkarteko ostalaritza sektoreko ordezkariak, esan du proposamen horrek zuzeneko eragina duela ASOHGEko kideen % 10ean. "Jakin egin behar dugu ea egongo den eta noiz", esan du Jorge Alonsok.

2.14 HOTELETARA BISITA KOMERTZIALAK EGITEKO PLANA Getxoko turismoko eskaintza eta zerbitzuak aurkezteko (2,2 puntu).

Iñigo García, Interpretazio zentroak, gidak eta bidaia agentziak sektorekoak, azaldu du proposamen horren muina dela aurrez aurre edo beste formula batzuen bidez joatea eta hoteletan merkataritza aurkezpenak egitea Getxoko eskaintza turistikoaren inguruan.

2.15 EROSKETAK JASO ETA ENTREGATZEA: Getxon erostea errazteko xedez, bilketa eta/edo entrega egiteko tokiak jartzeko aukera baloratzea: saltokiek baino ordutegi zabalagoak izango lituzkete, eta erosketen bilketa zentralizatua ahalbidetuko lukete. (2,42 puntu)



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Mirene Zabalgogezcoak garrantzitsutzat jo du Elikadura Jasangarria programaren lehen saioetan egindako baterako sorkuntza-lana, eta talde eragileak identifikatu dituen bi erronkak aipatu ditu:

- Etxez etxeko banaketa-eredua
- Kontzientziazioa eta prestakuntza

Lehenengo bi erronkei aurre egiteko aurreikusi da beste udalerrri batzuetako praktika onen jardunaldiak egitea, horrela aukera aniztasuna eskaintzeko eta baloratzeko ea baten bat ezarri ahalko litzatekeen: kontsignak, banaketa eta abar. Proposamen hori elikadura sektorean sortu zen, baina guztiak balio du merkataritza sektorearentzat eta jardunaldira gonbidatuko dira.

2.16 TAXIEN APLIKAZIOAREN PUBLIZITATEA EGITEA. (2,5 puntu)

Sonia Urdiainek azaldu du taxien mahaiak taxien aplikazioa promozionatzeko laguntza eskatu nahi duela. Inbertsio handia egin dute zerbitzua digitalizatzeko, eta ez dute lortu ezagutza eta erabilera zabaltzea.

Javier Elorzak, PPko ordezkariak, esan du ez zekiela aplikazio hori zegoenik. Bestalde, Ibon Rodriguezek, EH Bilduko ordezkariak, udalerriko taxien eskaintzari buruzko zalantzak azaldu ditu: “Aurreko ostegunean adibidez, 46 taxi lizentzia egonik, bakarrik 2 zeuden lanean, eta ordu eta erdi itxaron behar bada bat hartzeko, jendeak Uber edo Cabify erabiltzen du”. Javier Elorzak hauxe gehitu du: “Aurreko egunean 20:00etan deitu nuen Algortako taxi batera eta 1 ordu eta 15 minutu itxaron eta gero ez zen taxirik etorri”.

3.- Talde politikoek aurkeztutako proposamenen inguruko hausnarketa.

Lehenik eta behin, Carolina Uribek, Elkarrekin Podemosen ordezkariak, azpimarratu du egungo formatua gehiago gustatzen zaiola.

Getxo Bono kanpainaren inguruan, Carolina Uribek GetxoBono onetsi du merkataritza sektorearentzat eta uste du oso errotuta dagoela, baina ostalaritzarentzat kanpaina ezberdina egitea proposatu du eta Getxoberrirekin batera bonoak bidaltzea. Gainera, beste udalerrri batzuekin salmenta gurutzatuak egiteko kanpaina ere proposatu du, adibidez Sopelarekin.

“Getxon bizi naiz eta ez dakit zein den aisialdi eskaintza, eta horregatik uste dut panelena oso ideia ona dela”, azpimarratu du Carolina Uribek. Bestalde, gogorarazi du bere alderdiak ere nahi zuela banaketa sarea sortzea, eta Arrasateko eredua aipatu du, bizikleta elektrikoekin egiten dituztelako banaketak.

Era berean, Carolina Uribek ere dio udalerriko ostatu eskaintza handitu beharra dagoela, baina mugak ezarri behar zaizkiela pisu turistikoei.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Bestalde, Carolina Uribek galdetu du zein den taxietan publizitatea ezartzeko ekintzaren egoera. Proposamena martxan dagoen ordenantza berritzearen mende dagoela jakinarazi zaio.

Ibon Rodriguezek, EH Bilduko ordezkariak, uste du GetxoBonok ez duela funtzionatzen. Gainera, uste du ekonomikoki ez dela jasangarria denboran. Bestalde, EH Bilduren proposamena gogorarazi du, Getxo Card bezalako zerbait sortzea udalerriko saltokien arteko salmenta gurutzatuak suspertzeko.

TAOri buruz Ibon Rodríguezek ez du nahi kanpoan bizi direnek eta Getxon saltokia dutenek TAO txartela izaterik. Ibilgailu industrialei dagokienez, Ibon Rodríguezek karga eta deskargen figura azpimarratu du eta esan du beharrak betetzeko handitu egin daitekeela.

Gurutzaontzietan dagokienez, Ibon Rodríguezek esan du ez dagoela batere ados gurutzaontzietako bisitariak udalerrira etortzearekin: “Pentsatzen dugu ez dutela ezer gastatzen”. Hala ere, gurutzaontziak portura iristen direnez, Ibon Rodríguezek proposatu du bisitari horiengan pentsatzearen ordeza, tripulazioarentzat eskaintza zabaltzeko beharko litzatekeela.

“Orain dela urte eta erdi PPK jakinarazi zigun Euskal Herria kalea oinezkoentzako bihurtzeko aukera baztertu egin zela”, esan du Ibon Rodríguezek Euskal Herria kaleko proiektuari buruz. Irantzu Uriartek, EAJko ordezkariak, hauxe esan du horri buruz: “Ez da baztertu, gelditu egin da bakarrik”.

Mahaiaren inguruan orokorrean Ibon Rodriguezek uste du neurrien epea motzegia dela, eta sektoreei esan die epe ertain eta luzera gehiago pentsatzeko.

“Uste dut lankidetzaren publiko-pribatua egon behar dela. Ez da itzaroten egon behar publikoak edo pribatuak dena egiteko”, hasi da esaten Javier Elorza PP ordezkaria. Egungo egoera kontuan hartuta Javier Elorzak uste du GetxoBono beharrezkoa dela. Era berean, uste du ezinbestekoa dela negozioak digitalizatzea, baina sektorearen errealitatea askotarikoa da: “Badirudi saltoki batzuek amore eman dutela eta erretiroan pentsatzen ari direla inbertsio digitala egiten hasi beharrean”.

Bestalde, Javier Elorzak uste du mahaiak proposatu duten lekuan komun bat jartzea bideragarria izan daitekeela.

Javier Elorzaren iritziz Getxo plan turistikoak saltzen dituzten gurutzaontzien areto handietan egon behar da. Izan ere, gurutzaontzietako bidaiariek erosketak aurretik egiten dituzte, eta ez dute denborarik izaten jarduerarik egiteko.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

“Egoera oso espezifikoak aztertu beharko dira lanerako autoa ezinbestekoa baldin bada, baina ezin da orokorra izan Getxon saltoki bat duten eta kanpoan bizi diren guztiek TAO txartela izatea”, esan du Javier Elorzak.

Javier Elorzak uste du ezinbestekoa dela taxien aplikazioaren publizitatea egitea, izan ere “Edo mugitzen gara edo Uber etorriko da eta merkatu guztia bereganatuko du”.

Lehenik eta behin Carmen Díazek, PSOEko bozeramaileak, sektore mahaien lana eskertu du eta sektore ordezkarietarako dedikazioa eta esfortzua baloratu ditu. Era berean, uste du foroa baliogarria dela udaleko politikan eta kudeaketan iritzi gehiago egoteko.

Carmen Díazen iritziz GetxoBono oso baliogarria da eta garatzen eta hainbat sektoretako eskariei egokitzen joan da. Digitalizazioaren inguruan bisita pertsonalizatuak egitea proposatu du, eta Iñigo Urkitza Ekonomia Sustapeneko Arloko zinegotziak erantzun dio arloak baduela aholkularitza zerbitzua horretarako.

Publizitate espazioei dagokienez, Carmen Díazek esan du ez dakiela publizitate panelek asko lagunduko duten, baina bere iritziz baliogarria izan da egungo legegintzaldiak seinale gehiago jarri izana.

Bizkaia Cardi, hoteletako bisitei eta abarri buruz Carmen Díazek hauxe uste du: “Bereizita egiten diren ekintzak ez dira panazea, baina guztien artean indar gehiago dute eta proposamen onak dira”.

Era berean, Carmen Díazek uste du TAO ez litzatekeela orokortu behar, baina kasu bakoitza aztertu eta proposamenak baloratu beharko liratekeela.

Orokorrean, Irantzu Uriartek, EAJko ordezkariak, uste du foroak lehenetsitako ekintza hauek: GetxoBono, Merkealdiak, Gabonetako Kanpaina eta abar erabilgarriak eta beharrezkoak direla sektoreentzat, baina uste du “eskaintza eta merkealdietatik bizitzeak bere arazoak dituela”.

Plan turistikoen inguruan Irantzu Uriartek gogorarazi du metroak kartelak eta panelak aldatu zituela eta hainbat helburu turistiko gehitu zirela - Getxok proposatuta.

Bestalde, Irantzu Uriartek uste du ez dela hutsaldu behar TAOren helburua, hau da, ibilgailuak txandakatzea. Gainera, esan du epe bat ireki zela ordenantzan ekarpenak egiteko.

Publizitate espazioei dagokienez, Irantzu Uriartek esan du kirol portuan panel ikaragarri bat dagoela promozioak egiteko. Hori bai, udalak ezin du enpresa bat



promozionatu. Jorge Alonsok erantzun dio foroan pentsatu zutela kanpainak (besteak beste GetxoBono) edo kultura ekimenak promozionatzea. “Hori egiten da”, dio Irantzu Uriartek.

Merkataritza bisitei dagokienez, Irantzu Uriartek esan du ez direla hoteletan egiten, baina informazioa bidaltzen dela (liburuxkak, planoak eta abar), eta gune estrategikoetara bidaltzen dira, esaterako, Bilbotik Getxora eraman daitezkeen bisitariak egon daitezkeen guneetara.

Gurutzaontzietako bidaiariei dagokienez, Irantzu Uriartek esan du jatorrian egiten direla jardueren salmentak eta Getxo badagoela areto handietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren bitartez promozionatzen delako eta pakete osoa eskaintzen duelako.

Irantzu Uriarteren arabera: “Ostatuko eskaintza alternatiboa garatzeko tresna Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria izango da, eta bertan arautzen dira lurzoruak eta bertan zehazten da lurzoru bakoitza zertarako erabiliko den”.

4.- Kontrasteko taldeko eztabaida proposamenak analizatzeko. Galderak eta iradokizunak.

Carolina Uribek, Elkarrekin Podemosen ordezkariak, galdetu du ea zein den aurreko ekitaldietako proposamenen eta ekintzen egoera.

Halaber, bertaratuei gogorarazi die mahaien bilera guztietan aktak jasotzen direla eta udalaren web orrian eskuragarri daudela, hemen:

[Getxo - Ekonomia Sustapena - Enpresen Kontsulta Foroa- Enpresen Kontsulta Foroa](#)

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
2. Hurrengo sektore mahaien deialdiaren data deitzea.	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
3. Aurreko ekitaldietan lehenetsitako ekintzen egikaritze egoeraren berri ematea	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera
4. Hirigintzarekin berriro kontsultatzea komun publikoa jartzeko aukera	Udal-teknikariak	Bilera-egunetik aurrera